



ERAKUSKETA

HERIOTZA, DUINA ETA ILUSTRATUA

África Fanlo / Alba Domingo / Albert Arrayás / Alcon Hector / Andrea Zayas Anna Grimal / Berta Artigal
Clara Sáez / Coaner / Dani Torrent / Elisa Ancori Gemma Capdevila / Ignasi Blanch / Ilich Roimese
Jaume Montserrat / Jotaka Ilustración / La Pera Limonera / Lluís Cadafalch / Marc Vicens / Maria Beitia
Marina Guiu / Marta Bellvehí / Mr. Sis / Nirvana Jiménez / Pedro Alón / Ricardilus / Roger Estrany
Roser Matas / Sara Fratini / Vorja Sánchez / Wäwä Illustration
Patricia Sánchez / Iria Lúa / Leticia González

HERIOTZA, DUINA ETA ILUSTRATUA

Kataluniako Duintasunez Hiltzeko Eskubidea elkarteak (DMD-Cat) zenbait **artista gazte** gonbidatu ditu, heriotza duinaz duten ikuspegia ilustratu dezaten.

Ilustrazio sorta hautatu honen bidez urrats bat gehiago egin nahi dugu **HERIOTZAREN** tabua desmitifikatzen. Gure aburuz, gure kulturaren sarritan hain isildua izan den hitz hau **BIZITZA** hitza bezain garrantzitsua da.

Sentimenduak adierazteko bide den aldetik, heriotzaren gaia adierazten den irudi estereotipatua aldatzen lagundu dezake arteak. Bilduma honetako artistek **altruismoz** lagundu dute proiektu honetan, horietako bakoitzak **heriotza duinaz** duen ikuspegi erabat asketik abiatuta, eta, betiere, euskarri eta formatu berbera errespetatuz.

Erakusketa proiektu are zabalago baten zatia da, zeinaren xedea **heriotzari buruz solas egiteari ateak irekitzea** baita. Izan ere, oraindik orain, gai tabua da gure gizartean. Lasaitasunez hitz egin behar dugu heriotzaz, patxadaz: zer da, gutako bakoitzarentzat, heriotza duina, zer nahi genuke bizitzaren amaierako unean, nola gustatuko litzaiguke hiltzea, eta nola ez...

DMD-DHE elkartetik lekua eta denbora-tartea eskaini nahi dizuegu horretaz mintzatzeko. **Ilustratzaile** hauek egin diguten **oparia**, –bakoitzak heriotza adierazteko duen eite berezi eta beretik abiatuta– oso **aitzakia ona da solasari ekiteko**.

Zer da DMD?

DMD elkartea (Duintasunez Hiltzeko Eskubidea) irabazi asmorik gabeko erakundea da, 1984an sortua, norberak bere bizia noiz eta nola amaituko den erabakitzeke duen eskubidea defendatzeko asmoz, bereziki atzerazineko narriadura edo sufrimendu jasanezina pairatzen ari direnen kasuan.

Gure lana

- Askatasuna eta **norberaren bizitzaren amaierari buruz erabakitzeke eskubidea sustatzen ditugu.**
- Borrokan dihardugu **eutanasia-legea hobetzeko eta bertan baimendutako kasuak** herritar guztiengana **zabaltzeko.**
- **Legeen urraketak salatzen** eta haiek hobetzen dihardugu.
- **Bizitzaren amaierako osasun-eskubideei buruzko aholkularitza ematen diegu** (tratamenduak ukatzea, Aurretiazko Borondateen Dokumentua, zainketa aringarriak eta eutanasia) profesionaleri zein herritarrei oro har.
- **Heriotzaren tabua arbuiatzen dugu**, eta heriotza onaren kultura sustatzen.

Zer esan nahi du heriotza duinak?

DMDren aburuz, heriotza duina norberaren balio eta nahien arabera hiltzeko eskubidea da. Gure ustean DUINTASUNA kontzeptu subjektiboa da, zuzen-zuzen lotzen zaiona norberaren autonomia eta askatasunari.

Pentsa ezazu zuk zeuk ere zer den zuretzat heriotza duina, eta konpartitu ezazu zure senide eta gertuko pertsona eta lagunekin. Hartara, tabua hautsiko duzu!



Teknika: paper-collagea

AGURRA

Àfrica Fanlo

www.afrincafanlo.com

Bizitza eta heriotza lotzen dituen harian barrena goaz gu, ibiltariok. Zorutik zeruraino, gorantz doan bidean, baina baita beherantz ere, halako moduan non lur, sustrai eta zuhaitz garen, behin eta berriro errepikatzen den dantza batean, ezin jakin noiztik. Gona margodunak jantzita, eta beti elkarren alboan, heriotzak eta bizitzak itxura trukutzen dute elkarren artean, nahasteraino. Komeni denean jantzen dira, eta amaierarik gabeko elkarri tiratze betierekoan, bidea egin eta desegiten dute, sekula eta beti. Argi eta ilun, gau eta egun... horra gu gizakion dantza!



Teknika: akriliko eta arkatza, akuarela-paper gainean

HERIOTZA DUINA

Alba Domingo

www.albadomingo.com

Heriotzaren ideia prozesu fisiko gisa adierazi nahi izan dut, analogiaz elementu fisikoak hartuta, esaterako eraikin hutsak: bizitza beraietatik joan izanagatik, denboran zehar irauten eta iraungo duten oroitzapenei lotuta daude, lotuta betirako.



Teknika: arkatza eta akuarela

ERALDATZE

Albert Arrayás

www.albertarrayas.com

Beti pentsatu izan dut heriotza bitzta-mota batetik beste batera eraldatze-bide bat dela... Izatetik izatera eraldatzea, izan lore, animalia edo energia.



Teknika: tinta paper gainean

HOSTO ERORKOR

Alcon Héctor

Nire urratsak, nire bidearen gainean.
"Ni" gandik "dena" rantz. Nire urratsak ez dira inoiz zureak izango; horregatik zabilta aske.

Berez, izaera hutsez, pisugabe bihurtzen gara, arin...



Teknika: digitala, collagea eta arkatza

BERRIRO JAIO

Andrea Zayas

www.andreazayas.blogspot.com

Batzuetan estutasuna sortzen dit. Zenbaitetan izu ikara. Batzuetan ezaxola begiratzen diot, eta beste batzuetan heriotza eta jaiotza anaiak direla otutzen zait. Jaiotza gerta ahal dadin gertatzen dela heriotza. Eta jaiotzak daudela, hartara baieztatzeko heriotzak ez duela inoiz erabat eta guztiz hiltzen”.

(Eduardo Galeano)



Teknika: gouachea, koloretako arkatza eta Pilot errotilagailuekin


ABSENTZIA

Anna Grimal

www.annagrimal.com

Heriotza gozo bat dut gogoan, gelditasunera igarotzea balitz bezala, lasaitasunera. Irudiekin adieraztekoa naiz ni; hitz egokien bila, esaldi hau aurkitu dut, eta gustatu zait:

“Betiko ametsean nauzu zain, ez zaitez berandutu”.



Teknika: mistoa

HERIOTZA ONA

Berta Artigal

www.berartaartigal.com

Denok hilko gara.

Heriotza biziaren zati izanagatik, gure kulturari gaitz da.

Mexikoko kulturatik hartu dut ideia; han modu naturalagoan ulertzen baitute heriotza. Izan ere, gurtu ere egiten dute.

"Maitasun ona eta heriotza ona, horixe bai zoriona". Errefraux mexikar horren bitartez gaitz hautsi nahi izan dut, eta marrazkita irudikatu jende orori opa diodan heriotza on eta duina.



Teknika: koloretako arkatzak eta estanpazioa

ARIMA HONDORATZEN DENEAN

Clara Sáez

www.clarasaez.com

Arima hondoratzen denean, hortxe gaude gu, hura hartu eta babesteko, hari laguntzeko.



Teknika: ilustrazio digitala

ITZULERA

Coaner Codina

www.coaner.com

Eta une horretan
"ni"-a soinetik kentzen duzu,
eta jatorrira itzultzen zara,
osotasunean bat sentitzeko
eta transzenditzeko.



Teknika: grafito eta arkatz akuarelagarria
krema-paper gainean

ASKAPENA

Dani Torrent

www.danitorrent.com

Gorputza espetxe bihurtzen denean,
heriotza askapena izan daiteke.



Teknika: arkatza eta akuarela paper gainean

OFELIA

Elisa Ancori www.elisaancori.com
Nire lana John Everett Millais margolariak W. Shakespeareren *Hamlet* antzezlaneko pertsonaia ospetsuari buruz eginiko *Ophelia* margolanaren berrinterpretazioa da. Ekialdeko eite batez jantzi dudan nire Ophelia hau *Metamorphish* unibertsoan murgiltzen da, funtsean, gizakiaren eta izadi akuatikoaren arteko sinergia adierazten duen mundu bateko izakien bestiario bat da. Arima elbarriak dira, zein bere tragedia pertsonaletik berpiztuak, eta linbo birsortzaile horretako inguruarekin nahasten direlarik, izadia arduratzen da beren oskola hautsietatik geratzen dena sendatzeaz. Hara, horixe da bizitza, eten ezinean hazten eta birsortzen den bizitza bera.



Teknika: Akuarela

IHESBIDEA

Gemma Capdevila
www.gemmacapdevila.cat

Dagoeneko behar bezala erantzuten ez duen gorputz batean harrapatuta egotea, uretan murgilduta egon, eta ur-azala non dagoen ez jakitearen parekoa da. Irteera bat aurkitu behar da.



Teknika: arkatza eta gouachea

GAUR BAI EGUN POLITA

Ignasi Blanch

www.ignasiblanch.cat

Gaurko eguna polita da. Baina besterik ere izan daiteke: ilargi beteko gau bat, edo nire baratzeko arrosadiari begira, itsaso ertzean eserita Sándor Márairen liburu bat irakurriaz, aspaldiko gutunak berriro irakurtzen, euri azpian ibiliaz, basoan zehar pasieran... Une polit orok lagun nezake ongi sentitzen, eta nire bizitzarekin zer egin askatasun osoz erabakitzen.



Teknika: akuarela

NIK, LURPEAN NAHIAGO

Ilich Roimeser

Aspaldi, "erraustu nazatela" pentsatzen nuen, baina denborak aurrera, agian berpizterik izango dudala otu zitzaidan; horrenbestez, nik, nahiago dut lurpean.



Teknika: akrilikoa, tinta eta marrazkia

KORAPILOA

Jaume Montserrat

www.jaumemontserrat.wordpress.com
Budaren aipu honek itxura batean buruak min fisiko eta/edo emozionalaren gainean duen ahalmena adierazten du, baina beste hausnarketa baterako ere balia dezakegu, alegia, heriotza bezain saihestezina dugun zerbait noiz atzeratzeari uzteko unea erabakitzeko eskubideaz.

Korapiloak angustiaren eta egoera bortxatuen metafora izan nahi du, lokarri erlaxatuarekin kontraesanean, eta gogoratzen digu heriotza ez dela biziaren amaiera –batzuetan halakorik esaten zaigun arren–, biziaren osagarri baizik.



Teknika: akuarela

ASKATASUNA

Jotaká Ilustración

www.jotakailustration.com

Askatasuna... horra gure hiztegiko hitzik ederrenetarikoa bat, ez bada guztietan ederrena. Aske, nahi duguna maitatzeko, gure arteko aldeak axola gabe. Aske, baita, huts egiteko, izaki inperfektu garen aldetik. Aske, nola bizi nahi dugun hautatzeko.

Askatasunak duintasunez hiltzeko eskubidea ere hartzen du baitan. Gure eskubidea da hitz hain eder hori erabiltzea, askatasunak ezin baitigu inoiz eta inolaz minik egin.



Teknika: akrilikoa eta Posca errotozulagailuak


YALA

La Peralimonera

www.etsy.com/shop/laperalimonera

You always live again, horixe esan nahi du "Yala" izenburuak, alegia betierekoak garela.

Nire lanak adierazi nahi du hiltzea ez dela itxuraz aldatzea baino. Gure energia ez da hiltzen, aldatu baino ez, eta gero berriro mundura itzultzen da, gainerakoari bizia emateko (animaliei, landareei...) eta izarren osagai izateko.




Teknika: mistoa inpresio digitalean

JAUZIA HUTSEAN

Lluis cadafalch

Www.Cadafalch.Net

Nire lanarekin bizitzaren joana islatu nahi dut: jauzi bat, zeinaren amaieran erori egingo garenezinbestean, non pertsona orok ura noiz ukitu eta ezezagunean noiz sartuko erabakitzeko eskubidea izan behar duen. Heriotzaz asko idatzi izan da, era askotara, eta nik era positibo, alai eta irekian idatzi duten zenbait egile hautatu eta irudira ekarri ditut.



Teknika: tinta txinatarra eta akrilikoak paper gainean

ITXAROPEN FALTSURIK EZ: EZ GARA OPORRETAN DAUDEN ZENDUAK BAINO

Marc Vicens

www.marcvicens2.blogspot.com

Francesc Pujols XX. mende hasierako filosofo katalanaren esaldi batean oinarritu naiz heriotza duinari buruzko nire marrazkia osatzeko: "Itxaropen faltsurik ez: ez gara oporretan dauden zenduak baino".

Gustatzen zait esaldia (Quim Porteten abesti batean ere esaten da) giza-existentziari dramatismoa kentzeaz gain, denak amaiera-data duela gogoratzen digulako. Hara, bizitza eta heriotza erlatibizatze bide gisa ulertzen dut.

Gainera, keinu estetiko bat egin nahi diot Mexikoko kulturaren heriotza adierazteko moduari, heriotza gureak ez bezala ospatzen duen kultur eredu horri. Kaskezurrak barrezka dira, giro atsegin ederrean.



Teknika: mistoa

IZENBURURIK EZ

Maria Beitia

www.mariabeitia.com

Bizitza eta heriotza bizikide dira plano berean. Ez dut inoiz heriotzarik gabeko bizitarik aurkitu, ez eta bizitarik gabeko heriotzarik ere; horrenbestez, ezin ditut bata bestea gabe ulertu. Irudiko eskaileren bidez askatasunera hurbiltzen gaituzten eta norberak hautatu beharreko bi-deak irudikatu ditut.



Teknika: arkatza

SOSEGUA

Marina Guiu

www.marinaguiuilustracion.com

Lasai, bakean, bare, pozik eta trankil joaten den pertsona irudikatu nahi nuen. Sosegua eta argia islatuko dituen norbait, eta ez heriotzarekin lotzen ohi dugun iluntasuna.



Teknika: tinta txinatarra eta arkatza

IRTENBIDE BAT

Marta Bellvehí

www.martabellvehi.com

Gehienok urte asko barru espero dugu heriotza, beragan gehiegi pentsatu gabe, deseroso sentiarazten eta beldur ematen digulako. Baina zure eguneroko bizitza infernu latz bihurtu bada, normaltasuna berreskuratzeko itxaropena guztiz galdu baduzu, eta oinazeak eta ezintasunak inbaditzen bazaituzte, erraz ulertu daiteke laster batean nahiko zenukeela.

Irtenbide sotil bat azken puntu gisa. Aske izateak norberaren eta norbere gorputzaren etorkizuna hautatu ahal izatea esan nahi du.



Teknika: akrilikoa eta marrazkia

NIRE HATZEN ARTEAN KATRAMILATZEN ZAITUDALARIK

Mr. Sis

www.pinterest.es/siscuromero

Bizitzaren osagai gisa adierazi nahi izan dut heriotza. Bizitzan bada une bat non heriotzara modu adeitsuan eta zeure borondatez hurbiltzea erabakiko duzun, hura laztantzea eta zure erabakiaren konplize egitea, berarekin mintzatzea. Erabateko "heldutasun" une bat, berarekin joatea bezain erabaki garrantzitsua hartu aurretik sentituko duzuna.



Teknika: diseinu grafikoa, akuarela eta kobre-xafila

NIRE HAUTUA: NEURE BURUA

Nirvana Jiménez

www.nirvanajimenez.com

Bizitzak heriotza dakar berarekin, eta heriotzak bizitza. Ba ote luke zentzurik heriotza galarazten saiatzea bizitza bere azkenean denean, ahalmen oro galtzen denean? Norberaren borondateak eta bizi oso eta bete bat hautatzeak heriotza duina hautatzeko sosegua ere eman diezaguke, nahitako heriotza bat, ezinbesteko ziklo natural batean jarraitzeko.



Teknika: akrilikoa

NIGAN ATSEDEN

Pedro Alón

www.instagram.com/itoalon

Lan honek lagun maiteen berotasun gozoa irudikatzen du, heriotzarako igarobidean. Eskuek babes egiten diote maite den pertsonari, zein bihotz aldi berean metaforiko eta figuratibo gisa adierazi dudan. Hegaztia bidaiaren isla da. Inguratzen duen landare-koroak era harmoniatsuan berpizten den biziaren zikloa iradokitzen du.



Teknika: akuarela eta koloretako arkatzak paper gainean

OPHELIA

Ricardilus

www.instagram.com/ricardilus

Ophelia heriotzaren edertasunaren errepresentazioa da, heriotza bake desiratuta itzulerarik gabeko bidai gisa ulertuta.




BESARKADAK

Roger Estrany

Maite dituzunen eskutik helduta hiltzearen duintasuna adierazi nahi izan dut, azken besarkadaren azken unera arte.

Teknika: arkatza, anilina eta tatuatzeko tinta beltza



HAUTA EZAZU EGUNA

Roser Matas

rosermatas.blogspot.com/

Heriotza bizitzaren osagarria da, hain zuzen ere haren amaierako puntua. Heriotza batzuk istorio luze baten ondorio diren bitartean, bada ustekabeen agertzen denik ere, espero ez duzunean. Heriotza batzuk denbora dezentez abisatzen dizute, eta itxaronaldiak benetan luze jo dezake. Nekez egiten diogu aurre heriotzari, ez gaude norbere heriotzarako prest, ezta lagun hurko edo maite dugun norbaitenerako ere. Oso zaila da erabakiak hartzea une kritikoetan, osasunak kale egiten duenean, dena konplikatzan denean. Ez ote litzateke errazagoa norberaren esku uztea azken hatsa emateko unea hautatzea?

Teknika: moldaketa digitala



Teknika: tinta txinatarra paper gainean

UTZIDAZU JOATEN

Sara Fratini

www.sarafratini.com

Denok gara heriotzaren beldur, mundu honekin lotzen gaituena galtzearen beldur. Nire lanak joaten uztea islatu nahi du, hemengoak utzita aske izateko.



Teknika: grafitoa paper gainean

BORONDATEA, KUTXA IREKIA

Vorja Sánchez

Ez da lan erraza bizitzekoa bezain oinarrizkoa den eskubide sozial eta zibil bat lortzeko behar pertsonala laburbilduko duen irudi bat sortzea, lehia horren protagonistak norbere duintasunaren kalte konponezineko egoeran daudelarik. Benetan da zaila. Nik neuk ere, behar bezain argi eta errespetuzkoak ez zirelakoan zenbait aukera baztertu ostean, erabaki dut "kutxa ireki" honetan zenbait kontzeptu biltzea (askatasuna, zaugarritasuna, nahasmena, zarata...), egoera pertsonal hain konplexuak hein batean bederen ilustratu ditzaketelakoan. Espero dut laster gure osasun-sistemaren diruz babestutako zerbitzua izango dela.



Teknika: akuarela, arkatza, tinta eta akrilikoa

ZIKLOA

Wäwä Illustration
www.lawawa.net

Bizitzaren zikloa. Jaio, loratu, bizi, arnastu, maitatu, hegan egin, hazi, eta gero berriro ere inguratzen gaituen osotasunera itzultzea. Planeta, konstelazio eta izarrez osatutako osotasunera. Gustatu egiten zait pentsatzea joan den pertsona orok mendiko airean irauten duela, edo zuhaitzetako hostoen berdean, edo loreen dantzan, haize pixka bat dabilenean. Bizitzak dantza harmoniatsua izan behar du, jendearekin eta inguratzen gaituen izadiarekin batera. Horrenbestez, dantzan jarraitu ezin dugun ueña iristen bada, zer dela eta ezingo dugu dena etetea erabaki, eta berriro ibaietako ur eta arrastiriko arrosa izatera itzuli?



Teknika: diseinu grafikoa eta marrazkia

HEGALDIA

Patricia Sánchez
www.patriciasanchez.es

Nahitaezkoak ditugu leku ilunak, argia nabarmentzeko, baina behin argia aurkitzen dugularik, ezin dugu hemen geratu, eta maitasunak ezin digu hegan egiten galarazi, hori ez bailitzateke maitasun. Laguntzen eta bidea errazten duten guztiei eskaintzen diet *Hegaldia*, besteen argia lehenesten dutenei, baita horrek pertsona kuttunen gabeziak iluntasuna hein batean areagotzen dieten arren.



Teknika: akrilikoa paper gainean

MARRA MEHEAZ BESTALDERANTZ

Iria Lúa

Zergatik lotu behar genuke azal eta hezurreko kartzela batera, buruarekin hegan egiten duenean? Gorputza oroimenez husten ari zaio, baina horrek arinago bihurtzen duela pentsatzen dut atseginez eta, pixkanaka bada ere, irabazten ari zaio lehia grabitateari. Gure mundura lotzen duen sokak ez du askoz gehiago iraungo. Gero eta indartsuago ditu hegoak, distira egiten du bere errealitateak, kolore berrien argitan.

Hara, ikaratu egin du sokaren klaskak, beste hari bat hautsi delarik. Begiak ireki ditu, eta nik bakarrik dakit, ezen konturatzen ez den arren, azkenengoz itzuli dela gure artera. Orain niri piztu zait irribarrea, masailean behera malko baten arrastoa nabari bitartean, baina badakit dagoeneko ez dagoela gorputz preso horren barruan. Hegan doa, han goian, gero eta gorago, eta ez da inor haren bulkada geratu dezakeenik.



Teknika: mistoa (akuarela eta digitala)

ARIMA

Leticia González (piesenlaluna)

<https://www.facebook.com/media/set/?set=a.10209927646167086&type=3>

Arima lanak dimentsio lurtar honetatik grabitaterik gabeko beste batera iragaitea adierazten du, hartara non materiak pisurik ez duen, eta denboraren joanak oinazetik eragiten ez duen.

Adierazten du, baita metamorfosi orok berekin dakarren eraldaketa, giza-senaren beraren sublimazioa: unibertso iraunkorrera jaiotzea.

Arimak hegaldiaren askatasuna adierazten du, gorantz erortzea. Arin eta mehe den hori. Ikusezin den hori. Infitibito guztiak. Lehen irrikaren gauzatzea, bai eta azkenarena ere.



dmd dhe
DERECHO A MORIR DIGNAMENTE
DUINTASUNEZ HILTZEKO ESKUBIDEA
E U S K A D I

DMD DHE EUSKADI

Araba kalea 6 (erdi-sotoa) | 48014 Bilbo
Sarrera Burgos kaletik

 635 738 131

 dmdeuskadi@derechoamorir.org

derechoamorir.org